

AHTren AURKAKO MANIFESTAZIOA ARRASATEN ARRASATEKO ALKATEAREN HITZAK

Hemen bildu garen milaka lagunok argi daukagu. Argi daukagu “goitik” inposatu nahi diguten erokeria honi ezetz esan behar zaiola, ozen gainera, gure ipurdiak mugitu behar ditugula eta gure ahotsa entzunarazi. Argi daukagu “goitik” bultzatzen ari diren zentzugabekeriari ezetz esateko kalera irten behar dugula, gu bezala pentsatzen duten beste milaka herritarrekin batera kaleak bete behar ditugula. Horrelako egunak “goikoak” eta “behekoak” banatzen gaituen zuloa geroz eta sakonagoa bihurtzen ari denaren isla dira. 4 urtean behingo bozketek sudur puntan jartzen zaiena egiteko ahalmena ematen dietela pentsatzeari, euskaldunen gehiengoa deitzen diote. Ez dute lotsarik!

Lehenik eta behin, ez herritarrok eta ezta udalak ere, ez gaituzte informatzen; ez hori bakarrik, informazio hori ukatu, desinformatu eta engainatu besterik ez dute egiten. Eta bigarren, ez digute galdetu; eta ez hori bakarrik, galdetu dutenak ere zigortzen saiatzen ari dira. Bestela, zer dela eta herri-kontsultekiko erasoak? Euren ahotan hainbeste aldiz entzun behar izan dugun terminoa: herri-kontsulta. Baina, antza denez, herria pertsona edo partidu bakarrak kontsulta dezake. Hori al da hainbeste aldarrikatzen duten herri borondatea errespetatzea? Zergatik kendu nahi diete hitza herritarrei? Geroz eta gehiago garelako informatuak, geroz eta alkate eta hautetsi gehiago gaudelako zentzugabekeria honen aurka, geroz eta herri gehiagok ezezkoa ematen diotelako astakeria honi. Geroz eta denbora gutxiago dutelako guztion diruaz euren sakelak beteko dituen azpiegitura txikitzaile hau bideratu ahal izateko. Geroz eta indar gehiago daukagulako, eta beraiek gutxiago.

Kontrakoa pentsarazi nahi badigute ere, gai honetan esatekoa duguna asko da, bai herritarrok eta baita udalok ere. Horrexegatik, Abiadura Handiko Trenaren aurka gauden udal eta hautetsien sarearen izenean, lanean tinko jarraitzeko konpromisoa mantentzen dugula adierazi nahi dizuegu, gure eguneroko zereginetan erabaki instituzionalak eta herritarren borondatearen arteko distantzia laburtzen jarraituz eta inposizio honi ezetz esanez.

INO GALPARSORO, ARRASATEKO ALKATEA
AHTren aurkako udal eta hautetsien sarearen izenean